

5.4.- Errusiar Iraultza eta Sobiet Batasuna.

-Iraultzara bultzaturiko arrazoiak: nekazaritza eta honen kolektibizazio tradizionala. Aberastasun desberdintasun izugarriak. Demokraziarantz pausu gutxien egin zituen estatua Europan. Estatuaren izaera errepresiboa. Japoniaren kontra galdutako gerra. I. Mundu Gerran zehar Errusiar armadaren egoera ezin-okerragoa

-1917ko Iraultzak: hasieran iraultza bat gertatu zen otsailean tsarismoaren aurka eta Errepublikak aldarrikatu zen. Gobernu hori nahi ez-egonkorra izan zen eta urrian beste iraultza bat gertatu zen, indartsuagoa, boltxebikeek gidatua, eta laster jarri ziren boterean, Lenin zelarik partidu honen idazkari nagusia.

-Guda zibila: gerra odoltsu bat luzatu zen 1921era arte, zeinetan Armada Gorria eta boltxebikeen aurkako indar heterogeneoak aritu ziren borrokan. Oso suntsikorra izan zen eta kalte handia egin zion errusiar gizarteari. Gainera, honen ondoren Sobietar Batasunak isolamenduaren arazoari egin behar izan zion aurre.

GERRA KOMUNISMOA:

Premia nagusia gerra irabaztea zen, eta baita sozialismoaren bidean sakontzea, baina ez dago argi neurri asko nahiak ala premiek bultzatu zituzten:

Industria arloan: produkzioa handitzeko irizpideak, “larunbata komunista”, taylorismotik ikasitako teknikak, destaiuzko lana inposatu zen lanpostu batzuetan, derrigortze forma ezberdinak...

Nekazaritza arloan: produkzio erosketaren estatu-monopolioa inposatu zen. Neurri honekin hirien hornikuntza hobetzea lortu zen.

Industria eta mota guztietako enpresak nazionalizatzea.

NEP (POLITIKA EKONOMIKO BERRIA):

Ekonomia berreskuratzea zen elementu kapitalista batzuk txertatuz, baina modu kontrolatu batean, trantsizio garai bezala, behin ekonomia martxan jarri ondoren sozialismoa aurrera eramateko. Hobsbawn historialari britaniarrak dioenez, gerra-komunismotik nolabaiteko estatu-kapitalismo batetara pasatu zen.

- Nekazaritza- soberakinen bahiketa bertan behera uztea.
- Barne-merkataritza askatasuna dekretatu zen.
- Lan-eskuaren kontratazio librea.
- Tamaina txikiko enpresak desnazionalizatu egin ziren.
- Trust-ak bultzatu enpresa eta industria handiak elkartzeko.
- Kontsumo-kooperatiben erakuntza bultzatu zen eta estatuaren almagazak fundatu ziren.
- Kolektibizazioa boluntarioa aldarrikatu zen.

-NEParen ondorioak:

- Nekazal produkzioaren berreskurapen bizkorra.
- Nekazarien egoera hobetu zen.
- Nekazaritzaren eta industriaren arteko desorekak islatu ziren.
- Estatuak goitik gidatutako merkatuko nekazaritza-ekonomia bat.
- Industria produkzioaren hazkunde mantsoa.

GOSPLAN ETA BOSTURTEKO PLANAK

1928-29tik aurrera, NEParen ildoak guztiz abandonatu zen, eta estatutik eredu ekonomiko berri bat bultzatu zen. Eredu horrek hiru zutabe izango zituen: ekonomiaren planifikazio zentralizatua, industrializazioaren aldeko apustua eta nekazaritzaren kolektibizazioa. Josif Stalin izan zen garai honetan partiduko idazkari nagusia eta plan haiek aurrera eraman zituen. Neurri hauek martxan jartzeko, gobernuak horretarako diseinaturiko organo bat sortu zuen, Gosplan deiturikoa.

I. Bosturteko Plana(1929-1932): industria astunaren garapen indartsuari eta nekazaritzaren kolektibizazio azeleratuari zegoen, eta bere amaiera urte bete aurreratu zen, ustezko arrakastaren ondorioz.

II. Bosturteko Plana(1933-1937): kontsumo iraunkorrerako begirada handiagoa izan bazuen ere (bizikletak adib), berriro ere industria astunaren eta militarren garapenerako izan zen batik bat mesedegarri eta eskualde atzeratuenean garapenean arreta berezi jarri omen zen. Hau izan zen Purga Handien garaia.

III. Bosturteko Plana(1938-1942): ezin izan zen burutu Sobietar Batasunaren inbasio zela eta.

- Bosturteko Planen ondorioak:

- Kolektibizazioa nekoso eta, hein handi batean, porrota izan zen.
- Nekazal produkzio ahalmena ez zen gehiegi igo eta goseteak egon ziren.
- Industri arloaren produkzioaren hazkunde izugarria, %121ekoa.
- Hiritartze prozesu sakon bat gertatu zen.
- Hazkunde izugarria. Baina honen prezioa: bortxaren erabilera, hilketak, deporazioak, gosea... eta aztarna sakonak utzi zituen sobietar gizartean.

5.5.- II. Mundu Gerraren ekonomi ezaugarriak:

1930eko hamarkadako beheraldiak tentsio ekonomikoak dezente igoarazi zituen, eta baita ere krisiak eragindako politika espantsionistek, batez ere Alemania eta Japoniarengan.

Gerrarako mobilizazioa oso zabala izan zen eta estatuaren inoiz baino gehiagoko esku hartzearekin. Ondorioz, industria astuna eta armagintza nabarmen hazi ziren, baina aldi berean kontsumoaren beherakada eman zen.

II. Mundu Gerran guda zabala izan zen, eta bonbardaketen bitartez herrialdeen gune ekonomikoak eta sozialak suntsitzen saiatzen zen.

Gerraren ondorioz, Europak merkatuak galdu zituen eta bertako industria desegituratuta zegoen.

II. Mundu Gerra izan zen AEBrentzat beheraldi ekonomikotik ateratzeko formula, New Dealaren politikaren barruan beti ere.